



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, **ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA**

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, bestek beste, honako akordioa hartu zuen:

“2023 URTEALDIRAKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA (2022DPRE0001).”

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 20 bilkuran daudela, Udal Plenoak, aldeko 11 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta aurkako 9 boturekin (EH BILDU eta (PODEMOS ARRASATE), Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal gobernuak aurkeztutako 2023 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion partidak eta gorabehera nagusien azalpenak emanda, eta, gero, Barne Antolaketaren batzordean adostutako prozesuarekin, aipatu proiektua diktaminatu da Udaleko Osoko Bilkuran gaia jorrazteko.

Gastuen atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan, eta sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

Barne Antolaketaren batzordean aztertu da 2023 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

2023ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **hogeita hemeretzi milioi sei ehun eta berrogeita hamasei mila, zazpi ehun eta berrogeita bost euro eta hirurogeita lau zentimokoa da (39.656.745,64€)**

Aipatutako proiektua aztertu eta gero (partidak, exekuzio araua, eranskinak eta txostenak), Barne Antolaketaren batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, batzordeak aldeko txostena ematen dio proiektuari, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeetako ordezkarien aldeko botoekin,

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

eta EH-BILDU eta PODEMOS-ARRASATE udal taldeetako ordezkarien aurkako botoekin, eta Udaleko Osoko Bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiera batean onartzea 2023. EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA, barne hartzen ditu dokumentu guztiekin.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.”

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	11	EAJ PNV (8) eta PSE-EE(3)
Aurkako botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Abstentzioak		

EH BILDUREN EMENDAKINAK

1.- "MERKATARITZA BERRAKTIBATZEKO PLANA" partida sortzea - 30.000€

Arrazoa:

Herriko auzo ezberdinetan merkataritza sufritzen ari den krisiari aurre egiteko beharrezkoa ikusten dugu berau ber aktibatzeke eta biziberritzeke plan estrategiko bat garatzea. Alde zaharrean zein auzoetan.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

2.- "AUTOKARABANENTZAKO GUNEA EGITEKO" partida sortzea, 100.000€.

Arrazoa:

Honelako proiektu batek turismo jasagarria erakarriko du herrira eta honek ekonomian ere eragina izango du".

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeke hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

3.- "AZOKA BERRIA BERPLANTEATZEKO BAGARA PROIEKTUA MAHAIGAINERATU ETA BERTATIK PROIEKTU BAT" gauzatzeko partida sortzea, 40.000€.

Arrazoiak:

Lehen sektorearentzat garrantzi berezia duen espazioa izateaz gain, honen erreforma eta eraberritze proiektuak espazio anitza eta multidisziplinarra sortzeko aukera ematen digu.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

4.- "15 X 40 METROKO ZABALERAKO KARPA EROSTEA HAINBAT EKINTZA EKONOMIKO ETA KULTURALETARAKO" partida sortzea - 75.000€

Arrazoiak:

"Ekonomia, kultura, herrigintza, jaiak eta bestelako ekintzak antolatzeko karpa bat erostea proposatzen dugu. Gaur egun alokairu bidez ematen den zerbitzua urte gutxiren epean amortizatuta legoke."

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

5.- "PORTALOIA ERABERRITZEKO OBRAK" egiteko partida. 80.000€

Arrazoiak:

Ondare historikoa da eta udako higatzeaz gain, begetazioz beteta dago. Egoera onean mantentzeko lanak.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	8	EH BILDU (8)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak	1	PODEMOS ARRASATE (1)

6.- "ZERRAJERAKO ARKUA ERABERRITZEKO OBRAK" egiteko partida 80.000€

Arrazoiak:

Ondare historikoa da eta oso egoera txarrean dago eraikina. Egoera onean mantentzeko lanak.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	8	EH BILDU (8)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak	1	PODEMOS ARRASATE (1)

7.- "ARRASATEKO ONDARE HISTORIKOAREN INBENTARIOA EGITEA" partida sortzea - 10.000€

Arrazoiak:

Inbentario honek ondarea kuantifikatu, honen egoeraren gaineko azterketa egin, eta hauen jabetza, zaintzak eta ardurak jasoko ditu. Baita ondarea babesteko aholkuak jaso ere.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

8.- "HERRIKO ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA HAUREN ARTEAN APP BATEN BIDEZ ZABALTZEKO PROIEKTUA GAUZATZEA" partida berria sortzea, 15.000€ko kopuruarekin.

Egun teknologia berriak bitarteko oso interesgarria dira transmisio kultural eta historikorako. Arrasateko ondarea gazteenengana irits dadin tresna garrantzitsua izan liteke aplikazioa.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

9.- "ARRASATEK HEZI" proiektua babesteko partida berreskuratzea, 20.000€ko kopuruarekin.

Arrazoa:

Arrasatek Hezi proiektu parte hartzailea osotasunean, bere lan ildo guztiak jorratuz, garatzeko. Arrasatek Hezi proiektuak hezkuntza eta gazteria sailak batzen ditu herriko hainbat eragilerekina batera.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

10.- "HILETA ZIBILENTZAT ESPAZIOA SORTZEKO PROIEKTUA EGITEKO" partida sortzea, 40.000€.

Arrazoa:

Laikotasunez agurtzeko eskubidea gauzatzeko proiektua egitea proposatzen dugu. Uste dugu udalak espazio duin bat atontzeko proiektua egin behar duela eta zerbitzua gauzatzeko bestelako aspektu batzuk ere aintzat hartu.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

11.- "BIZIKLETAK GARBITZEKO GUNEA" 5.000€

Arrazoa:

Bizikleten eta mendi bizikleten gorakada handia egon da Arrasaten eta erabilera hau sustatzeko neurri ezinbesteko bezala bizikletak garbitzeko gune duinak egon behar direla uste dugu.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

12.- "ARRASATEKO ENERGIA KONTSUMOEN AZTERKETA ETA EFIZIENTZIA PLANA" egiteko partida sortu - 10.000€

Arrazoa:

Ezinbestekoa da lehenbailehen neurriak hartzea energia alorrean, lehentasunezkoa baita energiaren murriztea. Horretarako udal azpiegituren energia ohiturak ezagutu behar ditugu, eta efizientzia energetikoa aztertu. Horregatik, azterketa honetan:

Udalaren esku dauden eraikinen kontsumoa, hala nola kaleko argiztapen eta zerbitzuen azterketa egitea. Energia xahuketak identifikatu, eta energia modu eraginkor eta zentzudun batean erabiltzeko plana egin.

Herrian sortu daitezkeen energia iturri berriak aztertzeko azterketa.

13.- "TRANTZIZIO ENERGETIKORAKO LAGUNTZA BULEGOA" sortzeko partida sortu, 20.000€

Arrazoa:

"Krisi energetikoaren aurrean herritarrei energiaren inguruko informazioa errazteko informazio bulego bat martxan jartzeko proposamena da. Besteak beste, gas eta elektrizitate faktura eta kontsumoak ulertzeko informazio gunea izateko bokazioaz gain, tarifen eta konpainien migrazioetan lagunduko luketen teknikariez osatuta egongo litzatekeena."

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

**14.- “KULTUROLATIK MUSALARA BIDEGORRI PROIEKTUA” gauzatzeko
40.000€**

Arrazoa:

Kulturolatik Musakolara bidegorri duin eta eroso bat egotearen premia ikusten dugu. Bidegorri sare osoa osatzeko beste urrats bat gehiago.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

**15.- “MOJATEGI FUTBOL ETA ERRUGBIKO ZELAIETAN LEO ARGIZTAPENA
JARTZEKO PROIEKTUA BIDERATZEA - Next Generation bitartez adibidez.**

Arrazoa:

Gehien kontsumitzen duten argiteriak dira Arrasaten, eta 4-5 urtetan amortizatuko litzateke. 500.000€ (Next Generation)

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	8	EH BILDU (8)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak	1	PODEMOS ARRASATE (1)

**16.- “.KULTUROLARAKO DINAMIZATZAILEAREN FIGURA SORTZEA KULTUR
TALDEEN DINAMIZAZIORAKO” partida sortzea - 20.000€**

Arrazoa:

Kultur talde, eragile eta ikasleen arteko sinergiak sortzeko ezinbestekoa da dinamizatzailearen figura. Dinamizazio honek kultur eragileen arteko elkarlana eta sorkuntza bideratzeko baliatu behar da.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

17.- "JUAN ARZAMENDI MUSIKA ETXEAN GARATUKO DEN MUSIKARI LOTUTAKO SORMEN BEKA BAT" sortzeko partida sortzea -15.000€

Arrazoa:

Instalazio hauek sorkuntza musikalera bideratzea proposatzen dugu, horretarako propioki sortutako bekaldi batekin. Egonaldi artistiko honek musika izango du ardatz. Euskal artisten lanak bultzatzeaz gain, Arrasate Musikaleko ikasleekin bitartekotza lanak egiteko aukera emango du, musika artistiko eta profesionala ikasleei gerturatuz.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

18.- "ETORRI BERRI DIREN NERABEEKIN AISIA BIDEZ HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZA LANDU ETA PARTEKATZEKO" partida berria sortzea -30.000€.

Arrazoa:

Jatorri aniztasuna lantzeko orduan iruditzen zaigu garrantzitsua dela aisia, hezkuntza eta hizkuntza lantzea aisiaren bidez. Egun eskolek eta hezkuntza ez formalak egiten duten lana sendotzera bideratutako egitasmoa da.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

19.- "NERABE ETA GAZTEEKIN SARE SOZIAL, BLOG ETA ANTZEKO ADIERAZPENETAN EUSKARAZKO EKOIZPENA BULTZATZEKO" partida sortzea. - 15.000€.

Arrazoa:

Euskarazko ekoizpena bultzatu nahi bada teknologia berriak dira arlo garrantzitsuenetakoa. Etorrizuneko iritziak euskaraz jardun daitezzen oraindik hasi behar gara arloa lantzen.

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

20.- "HELDUEN EUSKARA IKASKETAK DOAKOTASUNEZ" gauzatzeko 30.000€ko partida sortzea.

Arrazoi:

Hiztunak irabazi nahi baditugu ezinbestekoa da erdararen baldintza beretan jokatzeko euskarak, helduen alfabetatzea doan eskainiz.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

21.- "MAHAIK, AULKIAK ETA KAIOLAK" erosteko partida sortzea - 40.000€

Arrazoi:

Azken urteetan nabarmendu da bai udalak antolatutako ekimenetan bai eragile eta auzotarrek egindakoetan ahulki eta mahaien beharra. Askotan beste udal batzuei eskatu behar izan zaie eta, beste batzuetan, alokatu egin behar izan dira; beraz, Arrasateko Udalak aulki eta mahai propio nahikoak izatea beharrezko iruditzen zaigu.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

22.- "AMAIA ANTZOKIA KONPONTZEKO" partida 100.000€ra igotze

Arrazoi:

Amaia Antzokia oso zaharkituta daga, beharrezkoa du konponketa sakona, aulkiak, berogailu sistema, oholtza, hezetasunak etab.

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

23.- "ARRASATEKO ETXE HUTSEN AZTERKETA EGITEA" - 6.000€

Arrazoa:

Arrasaten egindako azken etxe hutsen azterketa 2012koa da. Orduetik egoera asko aldatu da, baita alokairua garestitu ere. Azterketa honek etxe hutsen gaineko argazkia emango digu.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

24.- "ETXEETAN IGOGAILUAKJARTZEKO PARTIDAK HANDITU" - 50.000€

Arrazoa:

Etxebizitzetan irisgarritasuna bermatzeko diru partida handitzea, oraindik gaur gaurkoz etxebizitza asko daude irisgarritasun bermerik gabe.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

25.- "ARRASATEKO ESKOLETAKO HAURRAK NAHASTU ETA EKINTZA KOMUNAK ETA PARTEKATUAK BULTZATZEKO" partida berria sortzea, 10.000€ko kopuruarekin.

Arrazoa:

Arrasateko eskoletako haurren artean ekintza partekatuak bultzatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu herri ikuspegitik. Uste dugu egun ekintza gutxi partekatzen dituztela ikastetxeek eta udalari dagokiola duen ikuspegi integralagatik honetan sakontzea.

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

26.- "ANDREDETAN" proiektua gauzatzeko partida berria sortzea, 20.000€.

Arrazoiak:

Andredetan egitasrnoa berriz martxan jartzeko beharra ikusten dugu, egun bizi ditugun erronka feministei erantzuteko tresna ezinbestekoa delako. Berau gauzatu dadin baliabideak jarri behar ditu Udalak horretarako.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

27.- "AURREKONTUETAN GENERO INPAKTOA EBALUATZEN HASTEKO" 20.000(ko partida berria sortzea.

Arrazoiak:

Berdintasun politketan aurrera egiteko aurrekontuen eta sail ezberdinen garapenean genero ikuspegia txertatzea oinarritzkoa da eta horretarako ebaluazio bat egitea eskatzen dugu.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

28.- EMAKUME TXOKOAREN LEKUALDATZEA EXEKUTATZEA.

Arrazoiak:

Gai honen beharra argi eta garbi azalarazi da azken urteetan eta beharrezkoa da gaiari eutsi eta leku duin eta eroso baten kokatzea.

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

29.- "GAZTE LOKALETAN LANKETA HEZITZAILE INTEGRALA" gauzatzeko partida berria sortzea, 15.000€.

Arrazoa:

Gazte lokalak oso topaleku garrantzitsua dira nerabeentzat. Droga prebentzio aktibitateak harago, uste dugu lanketa hezitzaile integrala egin behar dela.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

30.- "GAZTETXOKOKO KONTSERBAZIORAKO PARTIDA IGOTZEA" 15.000€

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	8	EH BILDU (8)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak	1	PODEMOS ARRASATE (1)

31.- "ATERPE BAT GAZTEEK AUKERA IZAN DEZATEN TALDEAN KALEAN ATERPE ETA EGOERA DUINETAN EGOTEKO. 35.000€

Arrazoa:

Asko dira herrian zehar gazteek erabiltzen dituzten atarte, arkupe eta abarrak, honek askotan sortzen du bizilagunekin egonezinak, zikinkeriak zaratak etab. Hau ekidite aldera aurreikusi daitezke arkupedun lekuak beraiek kuadrillan egon daitezzen.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

32.- "NEGUKO ATERPE EGOKI ETA DUIN BAT EGOKITZEKO" partida BERRIA SORTZEA 20.000€ko kopuruarekin.

Arrazoia:

Arrasate bezalako herri batek ezin du onartu pertsonen kale gorrian gauak pasatzea, (gai humanitarioa da) eta batez ere negua datorrenean egoera larritu egiten da eta uste dugu beharrezkoa dela aterpetzea zena berreskuratzea, ez eraikin berrian baina bai leku duina dena, babesleku bat izan daitekeena herriko kale, atarte, banketxe eta abarretan lo egin ez dezaten.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

33.- KALE HEZITZAILEENTZAKO MATERIALA EROSTEA 8.000€

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

34.- NERABEEN PSIKOLOGIA ZERBITZUEN BEHARRAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA.30.000€

Arrazoia:

Psikologia zerbitzua unibertsala eta doakoa izan beharko luke. Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzu eskasa oso urrun dago eraginkorra izatetik. Txanponaren beste aldean, ordea, psikologia zerbitzu pribatua dago, guztion -eskura ez dauden prezioekin. Diru sarrera txikiak dituzten pertsonen psikologia zerbitzua izan dezaten diru laguntza partida bat sortzea eskatzen dugu.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

35.- GATAZKAK KONPONTZEKO BITARTEKARITZA ZERBITZUA.

Arrazoa:

Herrian gertatu daitezkeen bizikidetza arazoaren aurrean, gatazkak konpondu eta akordioak lortzeko zerbitzua martxan jartzeko partida sortzea.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

36.- ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETARA JOAN AHAL IZATEKO DIRU LAGUNTZAK. 20.000 €.

Arrazoa:

Herriko haur eta nerabe guztiak izan behar dute eskolaz kanpoko heziketa jasotzeko aukera. Askok, berain familien egoera ekonomikoa dela eta ezin dituzte beren intereseko afizio eta gaitasunak garatu, honen aurrean ulertzen dugu haur eta nerabe guztiak izan beharko luketela musika, ingelera, dantza, antzerkia, kirola etab. egiteko aukera.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

37.- "MENPEKOTASUNEN PREBENTZIO EKINTZAK" 40.000€ra

Arrazoa:

Prebentzio plan integrala gauzatzea.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

38.- "LARRIALDI ETXEEN PARKEA HANDITZEA" partida sortzea 100.000€

Arrazoia:

Gaur egun Arrasateko Udalak dauzkan larrialdi etxeak ez dira nahikoak, beteta daude eta, ondorioz, ondoko herrietara bidaltzen dituzte zerbitzuaren beharra duten pertsonak. Beharrezkoa ikusten dugu etorkizunean larrialdi etxe gehiago izatea herriko beharrari erantzuteko.

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

39.- ITURBIDE EGOITZAKO KANPO ALDEKO ESPAZIOA BERRIA EXEKUTATZEA. 20.000€

Arrazoia:

Dagoeneko proiektua egina dago, beraz, komeni da berau exekutatzea. Oinarrizkoa pertsona nagusien egoitzaren kanpoaldea txukun, eroso eta egokia izatea

Bertaratuak	20	
Aldeko botuak	9	EH BILDU (8) eta PODEMOS ARRASATE (1)
Aurkako botuak	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2022ko abenduaren 29an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H22/08889	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAXQDT.H.HUFG
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXQDTH.HUFG		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

